

Zeintzuk izango dira gure diru sarrera aktiboak? (aktiboen salmenta, erabileragatiko saria, harpidetzagatiko saria, mailegua, rentinga eta alokairua, lizentziak, broker edo komisio bidezko sariak eta publizitatea)

Gure proiektuaren diru sarrerak hainbat iturrietatik etorriko dira. Alde batetik, aplikazioaren oinarritzko erabilera doakoa izango da, ahalik eta erabiltzaile gehienegana iristeko herburuarekin. Hala ere, funtzio aurreratuak, eduki bereziak edo pertsonalizazio aukerak erabili nahi dituztenek harpidetza txiki bat ordaindu beharko dute. Bestetik, aplikazioaren barruan publizitate arduratsua sartu ahal izango da, betiere gure balioekin bat datozen erakundeen iragarkiak soilik erabiliz. Horrez gain, hezkuntza zantroentzako lizentziak eskainiko dira, aplikazioa ikasgelan modu gidatuan erabiltzeko. Azkenik, gizartea hobetzea heburu duten proiektuentzako dirulaguntza publikoak eta laguntzak eskuratzea ere aurreikusten dugu.

